



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2005eko abenduaren 27a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:00 **AMAIERA-ORDUA:** 19:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

M. Jose San Sebastian Aranburu, Martxiel Genoba Solaberrieta, Ainhoa Leunda San Sebastian, Noemi Ostolaza Arkauz, Asier Yeregi Campos, M^a Elena Legarra Alfaro, Eugenio Cotado Iturain, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

Bertaratu ez direnak

Eneko Olariaga Arruti, gaixorik dagoelako.



Aztergai zerrenda

1. Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2005eko azaroaren 29ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroak.
2. Onartzea, egoki bada, Udal honen Aurrekontu Propioaren 7/2005 zenbakidun kredituaren espedientearen aldaketa, kreditu-transferentzia modalitatean.
3. Onartzea, egoki bada, Udal honen Aurrekontu Propioaren 8/2005 zenbakidun kredituaren espedientearen aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean.
4. Onartzea, egoki bada, Tokiko Euskal Erakundeen Mahai Negoziatzailearen Hitzarmena.
5. Hutsik deklaratzeko, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 3. eraikina hartzeko emakida administratiboaren kontratazioa, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
6. Onartzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 3. eraikina hartzeko emakida administratiboaren kontratazioa arautuko duten Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-administratiboaren Plegua, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
7. Esleitzea, egoki bada, KARELA Kiroldagiko kirol instalakuntzen kudeaketa integrala.
8. Onartzea, egoki bada, Orioko kirol dartsenan hiru eraikinen estrukturak egiteko obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Ekonomiko-administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presako tramitazioz eta lehiaketa bidez.
9. Ez onartzea, egoki bada, EMILIO OLAZABAL ECHAVE Jaunaren legatua.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2005/12/27

10. Orioko PSE-EE Talde Politikoak aurkeztutako mozioa, Euskal Udal Legeari buruz.
11. Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO AZAROAREN 29KO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2005eko azaroaren 29ko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.

2. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL HONEN AURREKONTU PROPIOAREN 7/2005 ZENBAKIDUN KREDITUAREN ESPEDIENTEAREN ALDAKETA, KREDITU-TRANSFERENTZIA MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko abenduaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldaketarako 7/2005 zenbakidun espedienteari, kreditu-transferentzien modalitatean.

2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:



- a) *Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-kontuhartzailletza.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak:* Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa:* Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL HONEN AURREKONTU PROPIOAREN 8/2005 ZENBAKIDUN KREDITUAREN ESPEDIENTEAREN ALDAKETA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko abenduaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldaketarako 8/2005 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.



2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4. ONARTZEA, EGOKI BADA, TOKIKO EUSKAL ERAKUNDEEN MAHAI NEGOZIATZAILEAREN HITZARMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2005eko abenduaren 22an egindako Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA), Cotado (EA), Azkue (EA) eta San Sebastian (EAJ-PNV) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren kontrako



botoarekin, guztira **KONTRAKO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ONARTZEA, Tokiko Euskal Erakundeen Mahai Negoziatzailearen Hitzarmena.

Botoen arrazoiak azaltzerakoan, Jesus Rodriguez zinegotziak hitza hartzen du eta adierazten du PSE-EE-PSOE alderdi politikoa ez dagoela erabat izenpetutako hitzarmenaren kontra, hau da, ados dagoela onartutako soldaten igoerarekin, baina badaudela hitzarmenean hainbat gai soldataz gain oso arriskutsuak funtzio publikorako, adibidez, azpikontratazko klausulak, eta abar.

5. HUTSIK DEKLARATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 3. ERAIKINA HARTZEKO EMAKIDA ADMINISTRATIBOAREN KONTRATAZIOA, UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2005eko abenduaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ,** legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

HUTSIK DEKLARATZEA, Orioko Antilla Hondartzako 3. eraikina hartzeko emakida administratiboaren kontratazioa, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko, aurkeztutako proposamen bakarrak ez dituelako plegu baldintzak betetzen, hau da, ustiapenaren kanona 40.000 eurotan ezartzen zen plegu baldintzetan eta proposamenean, aldiz, 30.010 euro bakarrik eskaintzen dira.

6. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 3. ERAIKINA HARTZEKO EMAKIDA ADMINISTRATIBOAREN



**KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKO
ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA, UDALAK
BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2005eko abenduaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **ONARTZEA**, Udal honek baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko Orioko Antilla Hondartzako 3. eraikinean administrazioko emakidaren kontratazioa arautuko duten Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-administratiboaren Pleguak.

2. Administrazio Publikoen Kontratuen testu bateginaren ekainaren 16ko 2/2000 Legearen 78. artikuluan ezarritakoaren arabera, publiko egiten da Baldintza Orrien laburpen hau:

1. Entitate adjudikatzailea:

- a) Organismoa: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen atala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza.

2. Kontratuaren xedea:

- a) Deskripzioa: Orioko Antillako hondartzako 3. zenbakian dagoen eraikinaren okupaziorako kontzesio administratiboaren kontratazioa, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
- b) Non exekutatu den: Orion.
- c) Kontratuaren iraupena: Kontratu honen iraupen osoa 2018ko maiatzaren 30ean amaituko da.



d) Kontratuaren exekuzioak obra hauek egitea dakar: Orioko Antillako hondartzako 3. zenbakidun eraikina egokitzea, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.

3. Tramitazioa, prozesura eta adjudikatzeko era:

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Adjudikatzeko era: Lehiaketa.

4. Ustiapenaren kanona:

Gutxieneko kanona eta urteko kontratazio eperako izaera nagusia duena, lehen urtean, hau da, 2006ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra, 30.000 eurotan ezartzen da.

5. Garantiak:

- a) Behin-behinekoa: 600 euro.
- b) Behin-betikoa: 30.000 euro.

6. Iragarki gastuak:

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7. Kontratistaren sailkapena:

Ez da exijitzen.

8. Baldintza Orrien jendaurreko erakusketa:

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legearen 122. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orriak jende aurrean erakutsiko dira zortzi laneguneko epeaz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko. Udal Plenoak



erabakiko du erreklamazioei buruz, baldin badaude. Baldintza orrien kontra erreklamazioren bat aurkezten bada, lizitazioa behar-beharrezkoa den neurrian bakarrik atzeratuko da.

9. Non lortu dokumentazioa:

- a) Tokia: Orioko Udaletxea.
- b) Helbidea: Herriko plaza, 1.
- c) Posta kodea eta herria: 20810 Orio.
- d) Telefonoa: 943 83 03 46.
- e) Faxa: 943 13 02 60.

10. Proposamenak aurkezteko:

- a) Epea: Iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta, hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo hogeita sei (26) egunen barruan.
- b) Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.
- c) Tokia: Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzaitza. Herriko plaza, 1. 20810 Orio.
- d) Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 08:30etatik 14:30etara.

11. Proposamenak irekitzea:

- a) Tokia: Orioko Udaletxea.
- b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea bukatzen den egunaren hurrengo laneguna, larunbata ez bada. Larunbata baldin bada, hurrengo lanegunera pasako da eguna.
- c) Ordua: 12:00ak.



7. ESLEITZEA, EGOKI BADA, KARELA KIROLDEGIKO KIROL INSTALAKUNTZEN KUDEAKETA INTEGRALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak Orioko Udal Kiroldegiaren kirol instalakuntzen kudeaketa integralaren emakidaren kontratuaren esleipenerako tramitazioaren berri du, prozedura irekiz eta lehiaketa publikoan izapidetua, 2005eko azaroaren 7ko GAO-ko 210. zenbakian iragarria.

Epe baliiodunaren barruan ondorengo proposamenak aurkeztu ziren:

KIROLATZEN 2000, S.L.

G.M.A. GESTISPORT, S.L.

SERVIOCIO, S.L.

Ikusita Kontratazio Mahaiak aho batez kontratuaren esleipena KIROLATZEN 2000 S.L. Merkatal Elkarteari egitea proposatzen duela, puntuaziorik altuena lortu duen proposamena izan delako, Klausula Ekonomiko-administratibo Partikularren Pleguaren 18. artikuluan ezarritako lehiaketaren esleipenerako irizpideak kontuan harturik, bai eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek luzatutako txostena ere.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Kontratazio Mahaiak egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

LEHENENGO.- Baliozkotzat **DEKLARATZEA** 2005eko abenduaren 12an ospatutako pleguen irekiera egintza.

BIGARREN.- BEHIN BETIKO ESLEITZEA Orioko Udal Kiroldegiko kirol instalazioen kudeaketa integralaren kontratua **KIROLATZEN 2000, S.L.** Merkatal Elkarteari, Klausula Ekonomiko-administratibo Partikularren Pleguaren arabera, bai eta enpresa esleipendunak egindako proposamenaren arabera.



HIRUGARREN.- ITZULTZEA lizitazaile guztiei behin behineko bermeak, esleipendunari izan ezik, eta akordio hau jakinarazi eta hilabeteko epean 60.000 euroren balioan behin betiko bermea aurkeztu beharko du. Kontratu-agiria behin betiko fidantza aurkeztutakoan luzatuko da, jakinarazpena jaso eta hurrengo hilabeteko epearen barruan.

LAUGARRENA.- Alkateari behar adinako **AHALMENA EMATEA** dagokion kontratu administratibo eta publikoa sinatzeko.

8. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KIROL DARTSENAN HIRU ERAIKINEN ESTRUKTURAK EGITEKO OBRAK KONTRATATZEKO PLEGU BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, PRESAKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2005eko abenduaren 26an egindako Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **ONARTZEA** Orioko kirol dartsenan hiru eraikinen estrukturak egiteko obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Ekonomiko-administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presako tramitazioz eta lehiaketa bidez.
2. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legearen 78. artikulua xedatutakoaren arabera, argitaratu egiten da baldintza orrien laburpen hau:
 - 1.- **Erakunde adjudikatzailea.**
 - a) Erakundea: Orioko Udala.



- b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzaitza.

2.- Kontratuaren helburua.

- a) Helburuaren azalpena:

Orioko Kirol Portuan 3 eraikinen estrukturak eraikitzeko obrak egitea, proiektu teknikoaren arabera eta kontratu izaerako espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.

- b) Exekuzio epea:

Epea, guztira, 5 hilabetekoa izango da.

3.- Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
b) Prozedura: Presazkoa.
c) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren kopurua.

633.837,75 euro, BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.

5.- Garantiak.

Behin-behinekoa: 12.676,76 euro

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 4.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.- Kontratataren sailkapena.

Taldea C, azpitaldea 2, kategoria d.



8.- Agiriak jasotzeko.

Espedienteko dokumentazio teknikoa Planitec Kopia dendan aztertu ahal izango da: Urdaneta, 4. DONOSTIA.

9.- Eskaintzak aurkezteko.

- a) Epea: 13 egun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- b) Aurkeztu behar diren agiriak: baldintza orrietan zehaztutakoak.
- c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzailletzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.
- d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.

10.- Eskaintzen irekiera.

- a) Tokia: Orioko Udaletxea.
- b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita laugarren laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.
- c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

9. EZ ONARTZEA, EGOKI BADA, EMILIO OLAZABAL ECHAVE JAUNAREN LEGATUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Euskara eta Kultura Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:



EZ ONARTZEA Emilio Olazabal Echave Jaunaren legatua, 2002ko apirilaren 9an protokoloaren 427 zenbakian Zarauzko Félix María González de Echavarri Notarioaren aurrean emandako testamentu irekian ezarritakoa.

10. ORIOKO PSE-EE TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, EUSKAL UDAL LEGEARI BURUZ.

Jesus Rodriguez zinegotziak hitza hartzen du eta adierazten du Orioko PSE-EE talde politikoak aurkeztutako mozioa, Euskal Udal Legeari buruz, baztertu egiten duela, eta horren ordez, EAJ, EA eta PSE-EE talde politikoek honako mozio alternatiboa aurkezten dute:

Eusko Jaurlaritzari eskatzea, osatzen duten hiru alderdiek sinaturiko gobernu akordioan jasotzen den bezala, egungo legealdian Eusko Legebiltzarrerara Udal Lege Proiektua igortzea. Udalen ahalbide finantzarioa bermatzeko ere Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan udalen parte hartzea bidera dezatela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezkoko boto]:

ONARTZEA EAJ, EA eta PSE-EE talde politikoek aurkeztutako mozio alternatiboa, Euskal Udal Legeari buruz.

11. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATEA

IDAZKARIA